

Bada bizitza futbolaz harago



Bostekoa

Alex Silva

Larunbateko zortziak alde-
ra kalean nengo. Kalea
erdi hutsik sentitzen nuen.
Baziren kalean, bazterretan,
haur batzuk jolasten, egunaren
eta azkenaldian horren garesti
saltzen den eguzki izpien honda-
rretako orduez gozatzen ari ziren
emakumezko batzuk, eta zainke-
ta handirik gabeko txakur bat
edo beste, parkean. Baina udabe-
rri garaiko euririk gabeko arra-
tsalde baterako giro lasaiegia su-
matzen nuen. Berehala atera nin-
duten nire harriduratik...

Uyyyyyyyy!!!... bat entzun
nuen. Taberna ezagun baten bar-
rutiak zetorren hotsa, jende ugari-
rik batera sortutakoa, gainera.
Tira, futbola, pentsatu nuen bere-
hala, berriro futbola.

Gure gizartearen ardatz nagusi-
a. Berdin dio zenbat langabetu
dauden gure artean, krisi garaia
den edo ez, hotza edo beroa egiten
duen... Futbola gure gizartearen
eta gure bizitzaren, nahiz eta guk



Uyyyyyyyy!!!... bat entzun nuen. Taberna ezagun baten barnetik zetorren hotsa, jende ugariaren artean esandakoa gainera. Tira, futbola, pentsatu nuen berehala, berriro futbola. HITZA

ez nahi, ardatz nagusia da. Auto-
bus zerbitzuak maiz moldatzen
dituzte partida bat dagoelako, tra-
fikoa desbideratu egiten dute, es-
kaintzen diren zenbait ekintza
bertan behera lagatzen dira...
Eta gogoan dut oraindik Bizkaia
aldeko futbol taldearen partida-
gatik lan-orduak ere moldatu zi-
tuenekoa.

Gainera, gizartearen parte sen-
titzeko talde bat izan behar duzu

gustuko. Nik ez dut futbola gustu-
ko, baina talde bat aukeratu be-
har izatekotan, noski, Reala. Eta
azken emaitza honekin bada,
hobe.

Esaten ari naizena egia dela
frogatzeko, telebista jarri beste-
rik ez dugu egin behar. Goizean,
eguerdian, arratsaldean, iluna-
barrean, iluntzean... eta, asko-
tan, ordu txikietan ere futbola
programatzen dute. Publiko zein

pribatuatan. Badirudi futbolak
audientzia bermatzen duela.
Berdin dio zein. Bertakoa edo
kanpokoa, lehen mailakoa edo bi-
garrenekoa... Haurren futbola
ere ikusi izan dut asteburuan, he-
rria zaintzen ibili beharrean, tele-
bistari begira kafea hartzen zeu-
den ertzain bikote baten alboan.

Hala ere, ez litzateke txarra
izango kirolean oinarritutako gi-
zarte bat, kirola eginez eta egite-

tik bizi den gizarte bat. Baina hori
ez da geurea. Kirola ikusi bai, bai-
na egin... Neuk ere ez dut gustu-
ko.

Dena den, ikustearena ere
munduko komatxo guztien arte-
an jar dezakegu. Orain egun gutxi
errugbiko ligako finala eta kopa-
ko txapelketa izan dira. Jende gu-
txik jakin du; ez zuten telebistan
eman. Tenis edo judo txapelketek
ere ez dute oihartzun handirik
izaten.

Gauza bera gertatzen zaie ema-
kume kirolariari. Beren futbola
eta bestelako kirolek ere ez dute
zurrara handirik sortzen. Horre-
gatik ez dute *prime time*-aren me-
rezimendurik, askoren ustez.
Noski, tela gutxiko janzkerak eta
arropa estuak jantzen ez dituzten
bitartean, edo urak euren kirol
gorpuak igurtzen ez dituen bitar-
tean.

Tira, norberak atera ditzala on-
dorioak, baina orain egun batzuk
entzun nuen, telebistan hori ere,
behar bada futbol talde askori zo-
rrak arinduko dizkietela Europa-
ko aginduetara egokitzeke.
Albiste berean entzun nion politi-
ko bati: «Futbola amaituko
bagenu, bi egunetara gizarte guz-
tia manifestazioan izango
genuke. Beraz, futbola kohesio so-
ziazalerako tresna gisa tratatu be-
har dugu oraingoan». Atera kon-
tuak.